



Andoaingo taldeak mozio bikoitza aurkeztu zuen iraileko Udal batzarraldian

2014ko urriaren 3a, 412 zenbakia IX. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

MOZIO BIKOITZA AURKEZTU DUTE

Miela sei egunez jaietan izan eta gero Marizulora itzuli da

“Gora Miela! Gora Sanmielak! Gora Urnieta!”, alkate txikiak jaiari eta Mielari agur esan zieten horrela.

Asteartean gaueko bederatziak pasatxo zirenean Miela Marizulo aldera abiatu zen, sei egunez Urnietako jaien zaindari lanetan aritu eta gero. Atsedean hartzea dagokio, datorren urtean indarberrituta itzultzeko. Txaranga doinuek eta zezen suzkoek amaiera eman zioten jaiaren lehen txanpari, asteburuan hitzordu berriekin ekiteko.

Oro har parte hartze handia izan da aurtengo jaietan, aurreko urteetako ildoari eutsiz. Herriko eragileen ekarpena garrantzia handikoa izaten ari da, jaiari urnietar kutsu handiagoa itsatsiz.

Pausoka elkarteak hasiera eman zion jaiari, jaso duten elkartasun guztiagatik eskerrak emanez. Haien aldeko tonbola solidarioak arrakasta handia izan du, txosnatan jarritako txartel guztiak airean saldu zirelako. Urriaren 11n egun osoko jaia antolatu dute Hernanin. Pausokakoek suzuria botatzearekin batera, festazaleen txinparta piztu zen. Ostegunean hasita, patata tortila lehiaketan festarako gogo berezia nabaritzen zen. Asteburu luzean txosnagunea jaietako bilgune nagusi bilakatu da.



Mielak Marizuloko bidea hartu zuen astearte gauan.

Asko izan dira, baina Iñistor jaiaren aurtengo unerik politenetakoa bizi izan zen. Urnietar Prestu izendatu zuten Edu Muruamendiaraz, eta hari gorazarre eginez dozenaka gaztek eta gurasok Agurra dantzatu zioten. Emozioari eusteko

lanak izan zituen Egape dantza taldeko irakasle eta bidegileak.

Soka dantza, toka txapelketa, irrintzi lehiaketa, haurren eguna..., hitzordu gogoangarri ugari izan da egunotan. Astearte gauean DJ Xaibor musika jartzaileak dantzan jarri zituen

Larunbatean Urrakako auzotarrek paella jatearekin egun osoko festa hasiko dute. Gauez, Poxta Zahar taldeak bertso afaria antolatu du Oianumen

San Juan plazara hurbildutako gaztetxo guztiak. Festaz beteriko sei egun izan dira, asteburuan segida izango dutenak.

Larunbatean Urrakako auzotarrek paella jatearekin egun osoko festa antolatu dute, eta iluntzean, Aurrera Gure Ametsa taldeak Hueskako talde batekin batera dantza ikuskizuna eskainiko du. Poxta Zahar taldeak bertso afaria antolatu du Oianumen, Beñat Gaztelumendiren eta Iker Zubeldiaren parte hartzearekin.

Igandean txekor jatearekin eta azken trakarekin jaiari amaiera emango diote Urnietan.

Lehen sei egunetako hitzordu askoren bideoak eta argazkiak Aiurrik ohiko dituen webguneetan ikusgai daude.

San Juan plazako jai hotsak erabat isildu gabe daudela, Goiburuko auzotarrek aste osoan luzatuko diren Xoxokako jaiari hasiera emango diote. Herri kirolak, idi proba, bertso bazkaria..., datorren astelehenean eta asteartean jaiaren lehen txanpa iritsiko da. Bigarrenera, urriaren 10etik 12ra. Xoxokan karpa bat jarriko dute, jaiak eroso igaro daitezen.

[GEHIGARRI BEREZIA]

Euskara ahoan AEKren eskutik

Gurasolagun eta Mintzalegun egitasmoen aurkezpene ingo dute Basteron, larunbat honetan 12:00etan hasita.

[ANDOAIN, 4. ORRIALDEA]

Folklore eta jakiak Andoainen

Triana eta El Miajon de los Castuos kultur elkarteek folklore eta gastronomia jaialdia antolatu dute larunbat honetarako.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

San Juan plazaren etorkizuna hizpide

Plaza etorkizunean goitik behera eraldatuko dute eta erabakia hartzeko garaian herriarrek parte hartze zuzena izango dute. Bertan bulegoan botoa emateko aukera izango dute 16 urtetik gorakoek. Hiru dira bozkatzeko aukerak.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

Gazteok hartu hitza!

Andoaingo Udalak 16 eta 29 urte bitarteko gazteen artean parte hartze prozesua abiarazi nahi du. Solasaldien inguruko zehaztasunak:

	HELBURUAK	TALDEA	DATAK	TOKIA	Ordua
1. FASEA	Nolakoa da gaur egungo Andoain? Zer botatzen duzu faltan?	Batxilergoko eta LH zentroetako ikasleak	Urriak 8, asteazkena	Ondarreta ikastetxea	18:00
		Gazte lonjetako erabiltzaileak eta Gaztetxeko kideak	Urriak 14, asteartea	Gaztetxea	18:30
		Deialdi irekia	Urriak 15, asteazkena	Bastero Kulturunea	18:30

Informazio gehiagorako:
www.andoain.org
943 300 829
partehartu.wordpress.com

Antolatzailea:

ANDOAINGO UDALA

Laguntzailea:

Gipuzkoako Foru Aldundia

basoaltu@gmail.com • URNIETA

Anaitasuna

Kirol ederra eta euskal kultur ondarearen erakusle bizia. Kirol maila, ez soilik Euskal Herrian bizi diren euskaldunen artean, baizik eta munduan zehar barreitutako euskal diasporarentzat. Eta gure herrialdearekin zerikusiz izan gabe kirol honetara hurbilbu diren hainbat kirolari eta zaletuentzat. Munduko XVII. pilota txapelketa bukatu berri da Mexikoko Zinacantepec hirian, bertan, ilusioz gainezka agertu ziren hamazortzi herrialdetako pilotariak. Frantzia izan zen pilotari gehien bertaratu zuena (88), eta Italia, aldiz, ordezkariak xumeenarekin agertu zena, 2 pilotarik ordezkaturia izan baitzen. Hamar modalitate ezberdinetan banaturik parte hartu zuten kirolariek "dena" eman zuten frontoian.

Txapelketak, ez zuen izan hasiera ona, partidak jokatu behar ziren pilotalekuetako obrak guztiz amaitu gabe zeudelako. Egunak aurrera joan ahala, dena bere onera etorriko zen, eta mexikarrak harro zeuden horrelako txapelketa bat herrialdean bizitzeak suposatzen duen guztiagatik. Bai kirol mailan, baita giza-harremenen mailan ere. Zaletuen presentzia handitzen joan zen txapelketak aurrera egin ahala, azken bi egunetan, pilotalekuetako harmailak txikiegi geratzairaino.

Ahaztezina eta txalogarria hainbat pilotari amateurrek erakutsitako maila, eta ikustea frontoian nola uzten zuten bere izerdia. Azken txantzaraino. Ezin ahaztu, **Joseba Bilbao** eta **Gaston Intxausti** argentinarrek, edo, etxean jokatzeko zuten. **Miguel Urrutia**, **Rodrigo Ledesma**, **Rocio Guillen** eta **Ariana Cepeda** eskainitako erakustaldi bikainak. Zeresanik ez Euskal Herriatik (iparraldetik zein hegoalde) bertaratuak erakutsitako maila bikainak. Tartean, **Julen Loitegi** herritar gaztea. Bi pilotari txiletar bertatik bertara ezagutzeko aukera izan nuen, **Alex** eta **Xabier Etxeberria** anaiak, gorputza eta ari-ma jokaturako partida bakoitzean uzten zutenak, eta Txilen bertan, euskal kulturaren alde buru-belarri lanean dihardutenak. Ahaztezina, beraiekin, zein **Aldo** eta **Diego** mexikarrekin, frontoian eta frontoitik kanpo bizitutako guztia.

Txapelketa amaitu eta hurrengo egunean agurtu nituen, Alex eta Xabier txiletar anaiak. Noiz arte?, galdetu nien azken besarkada sentitua-
ren ostean. Ez zuten denbora askoren beharrik izan erantzuteko: independentziara arte!

Partidaz-partida sentitu zitekeen kirol arrunt bate-tik haratago doan elkar-tasuna arerioen artean

tubatuarrak... ikus zitezkeen, ordezkatzeko zuten herrialdeaz gain, Ikurriña ere beraiekin zaramatela, kasu askotan, arropan itsatsita. Edo, pilotalekue-tako pasilo zein atsedeen-lekue-tan belarriak goxarazten zizki-gun gure hizkuntzan elkar agurtzen zutela. Nola ahaztu, pilotari argentinar batek, bere hiru urteko haurtxoari pilotan eta euskaraz erakusten nola aritzen zen ikusteak utzitako ahozapore gozoa.

Partidaz partida sentitu zite-keen kirol arrunt batetik hara-tago doan elkartasuna arerioen artean. Elkarrenganako erres-petua. Pilotari batek aipatu zi-dan moduan, "kirol honetan, oraindik behintzat, garrantzi-tsuena ez da kosta ala kosta irabaztea. Zuzentasunak eta kiroltasunak, beste kiroleratik desberdin egiten du".

Azken eguneko finalak emo-zioz gainezka bizitu zituen gehiengo mexikarrak osatuta-ko zalegoak. Sari banaketa ekitaldian, urduritasuna, po-zak sotutako hainbat malko, une hunkigarriak partaide zein zaletuentzat.

Pilotaren aldeko maitasuna berrindartuta etxeratuko ziren partaide guztiak. Baina, ho-rrez gain, euskal kontzientzia ere berrindartuta, noizbait Euskal Herria utzi eta Ameri-ka osora joandako haien oi-nordeko diren hainbat eta hainbat pilotari eta zaletu. Euskal Herriak bizi duen espe-rantza unea ilusioz bizi dute. Kasu askotan, beraien aiton-amonak, edo urrutia goiko be-launaldiek, Euskal Herria utzi behar izan zuten, biziari eutsi-ko bazioten, herriaren alde borrokatu eta galtzaile izan ondoren. Jada, ez daude be-raiek izugarritzko esfortzuare-kin mantendutako Euskal Etxetara bisitan joandako ga-raian garaiko lehendakariaren diskurtso hutsalik onartzeko prest. "Guregana jada ez dadi-la ispiluarekin etorri, XXI. mendean gaude eta" esan zi-gun Jone mexikarrak, laster, Urkulluren bisita jasoko duten honetan. "Guk jakin nahi du-gu independentziara bidean zein urrats emango dituzten, eta guk zertan lagun dezake-gun. Ez besterik".

Txapelketa amaitu eta hu-rrengo egunean agurtu nituen, Alex eta Xabier txiletar anaiak. Noiz arte?, galdetu nien azken besarkada sentitua-
ren ostean. Ez zuten denbora askoren beharrik izan erantzuteko: independentziara arte!

HITZ-GEZIDUNAK

* Artista usurbildarra

		Iruraitz Gau-nako lekua	▼	* IZENA	▼	Estatuba-tuarrak	▼
		* DEITURA				Bizkaiko ibaia	▼
		Zeuden	▶				
		Bitxiak	▶				
Asteko 4. egun	▼	Kristal, beira	▼	Guztia, dena	▶	Iodoa	▶
Librea		Ipar EH-n, gailurra		Postura		Abilak, trebeak	
				Kontinente bat	▶		
				Ukatzeko			
Txinako hiria	▶					Nor, pluralean	▶
'S' formako hezur						Ardi, hitz elkartzeetan	
Frantziako departamentu	▶			... gain, oro-ren gainetik	▶		
Tente				Ez eme			
				Hesola	▶		
				Tona, labur-labur	▼		
						Errepikatuz, gorotza	▶
Izadia	▶						

SUDOKU

9 x9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar dituzu 1etik 9ra bitarte-ko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ez dela bi aldiz azaltzen errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3 x 3-ko laukian ere

		7			4	3		2
6		3	9		7			
9				2			6	
		8			6			5
7			8			1		
	5			4				6
			1		3	2		8
8	1	5			4			

GOITIK BEHERA

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharrekoak

1								
2								
3								
4								
5								
6								
7								
8								
9								

1. Sustrai jangarria. 2. Umeak edaten duen lehenengo esnea. 3. Bermeo eta Mundaka aurreko irla. 4. Argizagi. 5. Jardun. 6. Labore mota. 7. Asko. 8. Zalantzak desagerrarazi. 9. Irabazi.

ERANTZUNAK

3	7	2	4	7	3	8	6	1	5	9	8
4	7	9	1	6	3	3	2	2	5	8	8
1	6	8	8	3	3	3	3	3	3	3	3
9	1	6	8	3	3	3	3	3	3	3	3
4	1	3	5	2	7	9	6	8	8	4	4
3	5	2	7	9	6	8	8	4	4	1	6
7	9	6	8	8	4	4	1	6	7	3	5
6	8	4	3	2	1	5	6	7	9	8	4
1	6	8	4	3	2	1	5	6	7	9	8
2	5	1	7	6	8	4	3	9	2	3	9

I	S	A	K	I
P	A	R	I	S
Z	E	R	R	A
A	L	E	A	K
Z	A	Z	P	I

Ugaiti: Argitu, Gaiti. Ugaritu: Argitu, Gaiti.

Y	A	N	K	I	A	K	Z	I	A
L	E	N	A	K	I	A	K	Z	I
K	A	R	E	A	S	I	A	K	Z
G	A	B	I	R	O	A	S	I	A
Z	A	P	E	R	O	A	S	I	A
L	E	N	A	K	I	A	K	Z	I
O	A	R	E	A	S	I	A	K	Z
A	S	K	E	I	P	E	I	P	E
A	S	K	E	I	P	E	I	P	E
A	S	K	E	I	P	E	I	P	E

DATORREN ASTEAN HERRITARREK HIRU AUKEREN ARTEAN BAT ERABAKI BEHARKO DUTE

Herri kontsulta San Juan plazaren etorkizuna erabakitzeko

Etorkizunak San Juan plaza oinezkoentzat eta autorik gabekoa irudikatu du, Udalak ezarritako irizpideen arabera. Horiek nola gauzatu irudikatzeko, arkitekto ezberdinei proposamenak egitea eska-

tu eta finalera hiru aukera iritsi dira. Etorkizuneko San Juan plaza erabakitzea ez da soilik teknikarien eta Udal ordezkarien zeregina izango. Herritarrek ere iritzia emateko aukera izango dute.

Urnietako Udalak San Juan plaza eraberritzeko lehiaketa zabaldu zuen, irizpide zehatzak ezarriz. Gune atsegina izatea lehenetsiz, autorik gabekoa izango da. Oinezkoek izango dute lehenetasuna eta pleguetan zehatz-mehatz eskatu dute etorkizuneko plazak lotura zuzena izan behar duela Lekaio-ekin, Geltoki kalearekin edota Lourdes Iriondo jolastokiarekin. Udalak lehiaketara aurkeztutako hiru proposamen aukeratu ditu, behin betiko erabakia hartzeko. Udalak gustuko ditu finalera iritsitako hiru proposamenak: “Nabarmentzekoa da finalera iritsitako egitasmoen kalitatea, Udalaren eskakizunak betetzen baitituzte: elkarbizitzarako eta topagunea sustatzeko eremuak sortzea eta bultzatzea”. Eta horrez gain, “hesi arkitektonikoak baztertu eta plaza edertzeko altzari, zuhaitz, luminaria eta kalitatezko materialak erabiltzea proposatzen dutelako”.



Irailaren 24an hiru proposamenen aurkezpenera egin zuten. Laster herritarrek hiru aukeren artean bat erabaki beharko dute.

Udalak, ordea, ez du erabakia alderdi politikoen erabakira mugatu nahi eta datorren astean Bertan bulegoan botoa emateko aukera emango die urnietarrei.

Gaiak interesa piztu duela dirudi, irailaren 24an hiru pro-

posamenen aurkezpenera herritar ugari hurbildu baitzen. Egun hauetan, bestalde, herriko gune ezberdinetan finalera iritsitako proposamen bakoitza ikusgai izan da. Datorren astean botoa emateko aukera iristen denerako, aski ezagu-

nak izango dira hiru proposamen horiek.

HERRITARREN TXANDA

Proposamenak ikusi eta gero, Udalak hausnartu eta erabakitzeko tartea zabalduko du. Datorren astearen amaieran Bertan

Hamasei urtetik gorako urnietarrek botoa eman ahal izango dute Bertan bulegoan, datorren astean

bulegoetan Urnietan errolatuta dauden hamasei urtetik gorakoek botoa emateko aukera izango dute. Orduetgia honakoa izango da: Goizeko 09:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara.

Urriaren 11n, larunbatarekin, bozketa amaitzen denean kontaktari ekingo diote eta hor bertan jakinaraziko dute zeinen proposamenak irabazi duen.

Plazaren baitan hainbat eraldaketa burutu dira azken urteotan, udaletxearen aurrealdean bereziki. Epe motzera aldaketa handiagoak iragartzen dira, eta aldaketa horiek erabakitzeko garaian Udalak herritarrei iritzia emateko aukera eskainiko die.

Urriaren 11n, iluntzeko 20:00etan, irabazlearen berri emango dute ekitaldi irekian

Urriaren 9an, 10ean eta 11n botoa emateko aukera hamasei urtetik gorakoentzat



Olatz Alonsoren proposamena

“Gune zabal eta hesirik gabekoa proposatzen da, jarduera anitzak egiteko, non udaletxeak, ermitak eta elizak protagonismoa hartzen duten, batera artikulatuz”.



Albert Fuentesen proposamena

“Gauegungo plazaren berrantolaketa, bere betiko izaera mantenduz, baina erabilera eta ekin-tza berriei aurre egiteko gai den hiri-espazioa sortuz”.



Jon Ugaldere proposamena

“Herriaren bihotza, kontzientzia komunaren islada, oinezkoentzat berreskuratzen da. Topaguneak hurbilduz, gune desberdinen izaera lotuz”.

Mintzalagun egitasmoen aurkezpena larunbatean



Aurkezpena larunbat honetan egingo dute, eguerdiko 12:00etan hasita.

Andoaingo AEK euskaltegiak ikasturte berri-rako Mintzalagun eta Gurasolagun egitasmoak aurkeztuko ditu jendarean. Larunbat honetan eguerdiko 12:00etan hasita, Basteron musikaz eta antzerkiaz zipriztindutako kultur ekitaldia izango da. Kafea eta pastak ere eskainiko dituzte.

MINTZALAGUN

Euskara ahoan erabiltzeko egitasmoak laugarren urtea beteko du. Euskara praktika-ramateko modu eraginkorra da. Dagoeneko hamar talde osatu dira, berrogei herritarren inplikazioa lortuz. Lotsarik gabe, euskaraz hitz egiten jarraitu nahi dute.

GURASOLAGUN

Ekimen honen helburua guraso euskaldunak edota euskaraz ikasten ari diren gurasoak, egoera berdinean dauden beste guraso batzuekin harremanetan jartzea da; plazan, parkean, asteburuko txangoetan... Finean, familia

edo lagun giro guztiz euskalduna sortzea. Horretarako guraso eta umeekin mintzaltaldeak, tailer txikiak, irteera edo txangoak antolatzen dira. AEKren arabera, “aurreko ikasturtean eskola batzuekin martxan jarri ostean, egonkortasuna eta erreferentzialtasuna hartzen ari den egitasmoa da”. Ikasturte berrian Gurasolagun Andoaingo ikastetxeekin elkarlanean martxan jarriko da.

Mintzalagun eta Gurasolagun izateak abantailak ditu. EHUKo kredituak eskuratu ahal daitezke, bidaia eta egonaldiakarako deskontuak, AIZU! eta Argia aldizkariak eta Berria egunkaria merkeago, eta beste hainbat abantaila gehiago.

Larunbat honetan bi ekimenen aurkezpena egingo dute Basteron. Informazioa eskuratzeko une aproposa.

Andoaingo AEK

943 591 704
andoain@aek.org
mintzalagun.blogspot.com

1957an jaiotakoak

Udazkena iristearekin batera 1957an jaiotakoek urteroko bilkura eta bazkaria antolatzeko deialdia egin dute. Oraingoan hitzordua urriaren 25ean ipini dute, Txalaka jatetxean eguerdiko

14:00etan hasita. Izen emateko 30 euroko diru-sarreraren egin behar da Kutxan, izenabizenak ipiniz.

Kontu korrante zenbakia:
2095 5022 1064438285
Informazioa: 659 041 279

Iraileko Udal batzarraldia Andoaingo udaletxean

Kaleratzeak Stop taldeak bi mozio aurkeztu zituen

Ka eztabaidarik gabe igaro zen iraileko Udal batzarraldia. Udal batzarraldian **Stop Desahucios - Kaleratzeak Stop** elkarteak kideek hitza hartu zuten. Honorio Martin taldeko kideak bi mozio aurkeztu zituen, hain zuzen. Lau puntu osatu zen lehenengoa. Honakoak, hain zuzen: Udalerrian etxebizitza hutsak dituzten erakunde finantzieroei Alokabideren esku uztea eskatzea, Udalak bere gain hutsik dauden etxebizitzak detektatu eta erregistratzeko lana hartzea, Udal batzarrean ordezkariak alderdiei euren legebiltzarkideei Etxebizitzaren Legea egitea eskatzea eta, azkenik, Udalak herritarren etxebizitzarako eskubidea bermatzeko neurriak hartzea.

PPk abstentziora jo zuen biltartean, baiezkoa eman zuten gainerako hiru alderdiek.

ALOKABIDE ETA JAURLARITZA

Bigarren mozioak, Jaurlaritza eta Alokabide hartu zituen hizpide: “Andoaingo udalbatzak, Alokabideak kudeatutako Etxebizitza publikoen parkea dela-eta, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio ahalik eta azkarren behar diren erabakiak hartu eta beharrezko lege aldaketak burutu ditzala pasa den apirilaren 7an Eusko legebiltzarrak hartutako akordioa gauzatzearren”. Gasteizko akordio horren bost puntu zehaztu zituen mozioak. Lehenak, “alokairuko etxebizitzaren metro karratuaren prezioa benetan egoki dakiola merkatu prezioak izandako jaitsierari”. Bigarrena, “Errentak, tasak eta komunitate gastu finkoak barne, bizikidetzaren unitatearen diru-sarreraren %30etik gorakoa ez izatea bermatzea”. Hirugarrena, “Urtero errenta, gorantz zein beherantz, berraztertutako berrikuspen dataren aurreko ekitaldiko bizikidetzaren unitatearen diru-sarre-



Mozio bikoitza aurkeztu zuen Stop Desahucios - Kaleratzeak Stop taldeak.

Kaleratzeak Stop taldeak hutsik dauden etxebizitzak aurka eta alokairua sustatzeko plana aurkeztuko du ostegun honetan, prentsaurrekoan

ren arabera”. Laugarrenak, “Alokabideko maizterrek Eusko Jaurlaritzak ematen duen Etxebizitzaren Prestazio Osagarria baliatzeko aukera izan dezatela”. Azkenik hona zer dioen legebiltzarrean onartutako akordioa bosgarren puntuak: “Maizterrei komunitate gastuen kudeaketan zuzenean parte hartzea ahalbidetuko dieten mekanismoak ezar daitezela, murriztu daitezkeen kontsumoak gutxitzeagatik”.

.EUS DOMEINUA

EAJ alderdiak, euskararen normalizaziorako baliabide eta tresna guztiak baliatu behar direla adierazi ondoren, bi puntuko mozioa aurkeztu zuen .eus domeinuaren inguruan. Batetik, Udalaren domeinua, .eus domeinu bezala erregistratzea eta aktibatzea; eta bigarrenik, herriko partikular, zein enpresak ere animatzea .eus domeinura bere

egin dezaten. Aho batez onartu zituen bi puntuak udalbatzak. Soilik Asun Guerra PPko zinegotziak hartu zuen hitza bozkatu aurretik, euskara interneten bidez munduan zabaltzea dakarren edozein ekimenari bultzada eman behar zaiola adierazteko.

Jada irekita instituzio publiko, elkarte eta enpresek .eus dararmaten domeinu-izenak eskatzeko epea.

KUTXABANK

Bilduk Kutxaren inguruko mozioa aurkeztu zuen, Udalarri zera eskatuz: “Kutxaren eta Kutxabanken izaera publiko eta soziala bermatzeko beharrezkoak diren neurri eta erabakiak hartzeko borondate eta prestutasun irmoa” izan dezala eta norabide horretan, Kutxako batzarri eskakidetzaiola “Foru Aldundiak proposatu duen eskualdatze-prozesu hori martxan jar dezan, Gipuzkoako Kutxa banku-fundazioa bihurtu ez dadin eta herritarren eta bertako instituzioen izaera publiko eta soziala bermatzen jarraitu ahal izateko”. Mozioak beste hiru alderdien ezezkioa jaso zuen, egungo legeria kontuan hartuta Aldundiarren proposamena ez dela batera erreala argudiatuta.

ANDOAINGO GUDUA 1837

ORAIN LAMINAK SALGAI

IRAILAREN 8TIK
AURRERA

600mm x 420mm

SALGAI:

ANDOAIN

Stop, Delgado eta Ernaitza liburudendak.
Leitzaran markoak (Kale Berria) eta
Aiurri (Arantzibia plaza, 4-5)

Sorta osoa: 25 € (4 lamina)
Laminak banaka: 8 €

Erne! Aiurriko harpidedunek
eskaintza berezia dute
hamaboskariaren bitartez (20 €)
Ikus 435. zenbakia, irailaren 19an





Jaien hasiera bikaina

AZKEN URTEETAN GORPUZTUZ JOAN DA JAIEN HASIERA, ZEINAK INTERES BIZIA PIZTEN DUEN HERRITAR ASKOREN ARTEAN. KANPAI ERREPIKAREKIN HASI ETA MIELAREN JAITSIERAREKIN EMOZIOAK GAINEZKA EGITEN DU. PAUSOKAK BOTA ZUEN TXUPINAZOA.



Buruntzantzan batukadak eta gazte funky taldeak biek elkarrekin ikuskizun ederra eskaini zuten.



Txupinazoa bota eta berehala, Buruntzantzan taldeak kalejirari hasiera eman zion.



Pausoka elkarteko hainbat kide hurbildu zen udaletxera, ostegun arratsaldean.

Zerbait berezia zegoen giroan, ostegun arratsaldean San Juan plaza inguruan. Irrika eta emozio nahasketa modukoa, Mielaren jaitsiera gerturatzen ari zenean. Jaia hasteko irrika, Miela ikusteko emozioa,... Urnietako jaiaren hasierako poz hori zen. Antzina egiten zen bezala, kanpai errepiharekin herrigunera gerturatze-ko deia egin zen. Plazan dagoeneko familia eta koadrila asko ikus zitezkeen, baina zazpirak emateko zirenean hasi zen

benetako mugimendua. Miela jaitsi zenerako plaza jendez lepo beteta zegoen. Miela jaietako zapi zuria eskuan jaitsi zen kanpandorretik, haur eta gazte askoren oihuen artean. Jaiaren ikur eta zaindaria da, errespetua eta balore positiboak ordezkatzeko dituen.

Balkoira txalo artean iritsi eta Pausoka gaixotasun arraroak dituzten gurasoen elkarteak jaien hasierako pregoia irakurri eta txupinazoa bota zuten. Eskerrak emateko aukera baliatu zuten,



Mielaren jaitsiera eta igoera, ekitaldi magikoak haur eta gaztetxo askorentzat.



Maiteder edota Maria, Pausoka elkarteko kideak haurrek lagunduta.

ezinbestean, urnietar askok euren ekimenekin bat egin baitute. Aurtengo jaietan horren froga berriak jaso dituzte. Haien txosna ingurura herritar ugari hurbildu da kamisetak edota jertsea erostera. Are gehiago, elkartasunezko tonbolan salgai jarri zituzten ia mila txartelak airean saldu ziren. Herriko merkataria, txosna batzordea, herritarrak,... denen laguntzarekin Pausokak toki berezia izan du aurtengo jaietan.

Jaien hasiera ekitaldi ezberdinen ka-

teaketa izaten denez, jaien hasierako suziriak danbor doinuak piztu zituen. Buruntzantzan batukada taldeak eta funky taldeko gazteek sekulako ikuskizuna eskaini zuten, bertan ziren guztien txaloak eta oihuak sorraziz. Plazatik abiatu ziren eta gertu zeuden txosnetan saioa eskaini zuten. Eta gaua gerturatu ahala, rockabilly giroko festazaleak agertuz joan ziren. Festarako gogoia zegoen eta ondo baino hobeto baliatu zuten jaietako lehen orduetan.



Parte hartze handia jaietako lehen asteburuan

HITZORDU NAGUSIAK LEHEN ASTEBURUAN DEITUTA ZEUDEN ETA, ORO HAR, EGURALDI ONAREKIN IGARO ZIREN. AZKEN URTEETAKO JOERARI EUTSIZ, PARTE HARTZE HANDIA IZAN DA EGUNEZ ETA GAUEZ ANTOLATUTAKO HITZORDUETAN.



Haur jaioberriei jaietako zapi zuria jarri zien Udalak, aurreko ostiral arratsaldean.



Txosnetan lanean herrikide asko aritu da.



Egape dantza taldeko dantzariak ostegun arratsaldean, txosna barruan lanean.



Buruntzantzan taldekoek saioa bukatu eta indarrak berreskuratu asmoz pisto erraldoia prestatu zuten.



Txosna eremuan hitzordu ugari burutu da egunez eta gauez. Jaiaren bilgune nagusietakoa da.



Emakumeen taldea larunbatean kalez kale ibili zen, txaranga gertu zutela.



Rock kam band kamioi gañean kalejiran ibili zen herrigunean, jarraitzaile asko lagun zituela.

Jaiaz gozatzeko aukera ugari

DANTZA EGINEZ, MUSIKA JOZ, IKUSLE MODURA EDO JAKIAK DASTATUZ SANMIELEZ GOZATZEKO AUKERA UGARI DAGO. HAUR, GAZTE ETA HELDU DENAK MURGILDU DIRA JAIETAN.

Adin guztietako urnietarrak asetzeko moduko festak izan ohi dira. Sanmieletan ehunka dira ekitaldi ezberdinetan protagonista diren herritarrak. Parte hartze hori ezinbestekoa izaten ari da jaiaren arrakastan. Dantzariak, danborradako kideak..., tradizio handiko ekitaldiekin batera beste berriago batzuk sortzen ari dira. Koadrilen arteko olinpiadak, esaterako.

Parte hartzaile horiekin batera, haiei begira dauden herrikideak ere festaren parte dira. Ikusiz gozatzun dute, eta gozatzeko modu gehiago ere topatzen dituzte. Besteak beste, talo jatean edo hegaluzearen dastaketan. Edatekoak bezalaxe, jatekoak festa eremutik gertu dauden askoren interesa piztu ohi du.



Dantzari txikien saioa.



Urdanbor taldeak lehen saioa egin zuen larunbat arratsaldean San Juan plazan.



Barrilak, makilak..., partaide askorekin irteten da Urnietan danborrada.



Txosnatan talo jatea antolatuta zuten igande arratsaldean.



Bertako hegaluzea jateko aukera bikaina eskaini zuten astelehen arratsaldean, txosna gunean.



Alkate soinua udaletxetik elizara, ordezkaritza duten hiru alderdietako kideen parte hartzearekin.



Gorritiren animaliek ikusmina sortu zuten gaztetxoaren artean. Batzuk bizi-bizi aritu ziren aurretik korrika.

Dantza soka herrikoia

BERRESKURATU ZUTENETIK HITZORDU SEINALATU HORIETAKOA DA, SAN JUAN PLAZAREN INGURUA JENDEZ BETETZEN DENA. BELAUNALDI EZBERDINEN ARTEKO BILGUNEA DA, HAIN MAITEA DEN TRADIZIOA URTEZ URTE INDARTUKO DEN ITXURA.



Dantzari ohiak dantzari bilakatzen dira Dantza sokan.



Txalo zaparrada jaso ohi dute Dantza sokan parte hartzen.



Txanbolin taldeko txistulariak San Juan plazako taula gainean.



Erromeria egin zuten Dantza soka amaitu eta berehala.

Udal omenaldia euskara munduari

Euskara ardatz duten herritarrak eta herriko elkarteak omendu zituen Udalak, San Miguel egunean. Hiazinto Fernandorenaren ibilbidea eta jokabide kementsua, Banaiz Bagara elkartearen lana edota Iñistorra euskaltzaleen biltzarraren ekarpena nahikoa arrazoi izan dira Urnietako Udalaren omenaldia jasotzeko. Hiazinto Fernandorena ez zen bertan izan, baina bai bere senideak. Udal ordezkariak batek bihararen egunean Hiazintori helarazi zion omenaldiaren albistea, egun bizitoki duen Andoaingo San Juan Bataiatzailea zaharren egoitzan. Elserrek eta Unanuek hitza hartu zuten jasotako omenaldia eskertzeko. Agin Laburu eta Patxi Etxeberria bertsolariek Udalak omen-dutakoen merituak bertso bidez abestu zituzten.



Udal ordezkariak eta omenduak elkarrekin, udaletxeko pleno aretoan.

Edu Muruamendiaraz hunkitzea lortu zuten

EGOERA ESTUAN IPINI ZUTEN EDU MURUAMENDIARAZ IÑISTOR JAIAN ANTOLATZEN DEN OMENALDI EKITALDIAN. EMOZIOARI EUSTEKO AHALEGIN BEREZIA EGIN ZUEN ARREN, HUNKITZEA LORTU ZUTEN.

Bertso saioaren amaiera aldera urduri antzera zegoen Muruamendiaraz. Urduritasun hori areagotuz joan zen Jon Unanue Iñistorra elkarteko kidea *Urnietar Prestu* izendapenaren meritua irakurtzen hasi zenean. Atzetik Mikel Pagola alkatea gerturatu zitzaion eta taula gainera igo zuen, omenduei ipintzen zaien jaka janztera. Eta han goian zegoela taula gainera dozenaka dantzari ikusi zuen gerturatzen, maisuari Agurra dantzatzeko prest. Hura baino omenaldi politagorik! Mikrofonora gerturatu eta hor iritsi zitzaion Eduri bigarren egoera estua. Jendaurrean dantza egitera ohituta bada-go ere, hitz egitea kosta egiten zaiola aitortu baitzuen. Egaperi, Udalari eta Iñistorrari eskerrak emateko aukera baliatu eta zera gaineratu zuen: Urnietan urnietarrekin bidea elkarrekin egiten jarraitzeko prest dago. Juxto Egañak zioen altxor modukoa dela Edu Urnietan izatea. Jarrai dezala luzaroan.



Juxto Egañak ere omenaldi ekitaldian hitza hartu zuen, Muruamendiarazen alde hitz egiteko.



Bertso ederrak eskaini zizkioten Edu Muruamendiaraz *Urnietar Prestu* izendatu berriari.



Taula gainean zegoela, ehundik gora dantzarik Agurra dantzatu zioten Edu Muruamendiarazi.

Seitik sei, toka txapeldunaren tiraldia pefektua

MARKA DA GERO IRUNGO KARLOS IRASTORZAK IÑISTOR JAIAREN HASIERAKO TOKA TXAPELKETAN EGIN ZUENA. TIRALDI BATEAN SEITIK SEI FITXAK TXAPARA JOAN ZIREN. HORRELAKO ERAKUSTALDIA EGIN ETA GERO, BERAK IRABAZI ZUEN TXAPELA.



Prudentzio Olano lasartearraren aurretik irabazi zuen Karlos Irastorza irundarrak.



Kantoi tabernaren parean eta ermita inguruan ikusmin handia piztu zuen toka txapelketak.

“Gora Miela! Gora Sanmielak! Gora Urnieta!”

BIBA ETA OIHUEN ARTEAN AGURTU ZUTEN MIELA, ASTEARTE GAUEAN. TXARANGA DOINUEKIN MIELA IGO ZUTEN KANPANDORRERA ETA MARIZULON EZKUTATU ETA BEREHALA, JAIARI AMAIERA EMATEKO BI ZEZEN SUZKO AGERTU ZIREN PLAZAN.



Ritxar Goya eta Luzia Montero Urnietako alkate txikiak izan ziren irailaren 30ean, haurren egunean. Kargua utzi eta gero, Miela agurtzeko ardura eurena izan zen.



Zezen suzkoarekin amaiera eman zioten astearte iluntzeko ospakizunei.



Sei egunez Urnietako jaietan murgilduta izan eta gero, Marizulo aldera igo zen. Datorren urtera arte.

Irrintzi lehiaketa ETB1n zuzenean

EUSKAL TELEBISTAKO KAMARAK BERTAN ZIRELA IRRINTZI LEHIAKETAREN EDIZIO BERRIA ANTOLATU ZUEN IÑISTORRAK. ORIOKO NEREA ARRIAGA IZAN ZEN IRABAZLEA HELDUEN MAILAN, ETA HAURREN ARTEAN ENKA IRIBARREN HERNANIARRA NAGUSITU ZEN.



Eneka Iribarren nagusitu zen haur eta gazteen mailan. Bigarrena, urdinez, Urtzi Lusaereta izan zen.



Epaimahaiak lan handiagoa izan zuen haur eta gazte txoen mailako irabazleak erabakitzen.

Jaien azken txanpa



Futbolina larunbat arratsaldean.



Ardo dastaketa igande eguerdian.

URRIAK 4, LARUNBATA

- 11:00** Toka eta Bote txapelketak Urraka auzoan.
- 12:00** Sardina jatea Plazido Muxika plazan.
- 14:00** Paella jatea herrikoia Urrakan.
- 15:30-18:30** Futbolin erraldoi txapelketa Egapen.
- 17:00-20:00** Haur ikuskizuna eta ur-zenen entzierroa Urrakan.
- 18:30-20:30** Urnietako I. Txirrindularitza Kriteriuma Idiazabal kalean.
- 19:00-20:30** Saroben Aurrera Gure Ametsa eta La Rondalla de San Vicente de Esplus (Huesca).
- 21:00** Kalderetea Urrakan.
- 22:00** Disko festa Urrakan.
- 22:00** Bertso-afaria Oianumen: Beñat Gaztelumendi eta Iker Zubeldia.

URRIAK 5, IGANDEA

- BASERRITARREN EGUNA**
- 09:30** Diana.
- 11:00** Meza Nagusia.
- 11:30** Zaldi proba probalekuan.
- 12:00** Pintxo-potea eta munduko ardoak Jakutegi plazan, Batzokiak antolatuta. Pintxo eta ardoa, 2 euro.
- 12:00** Ingurutxo eta XIII. Jalgi Plazara jaialdia Aurrera Gure Ametsa taldearen eskutik, plazan. Errioxako eta Aragoiko produktuen dastaketa.
- 17:00** Herri kirol erakustaldia probalekuan. Trikitilarien kalejira.
- 18:00** Txekor jatea eta sagardo dastaketa plazan.
- 19:00** Dantzaldia: Egan.
- 21:15** Zezen suzkoak eta azken traka.



Paella jate herrikoia Urrakan, larunbatean.

Xoxoka jaietan



Irazu eta Arzallus aurtan ere bertsotan arituko dira.

URRIAK 6, ASTELEHENA

- 12:00** Jaien hasiera.
- 12:30** Herri kirolak: Telleria eta Mugerza anaiak elkarren aurka. Ondoren, Elustondo anai-arreba trikitilariak.
- 14:00** Bazkari herrikoia Jexux Mari Irazu eta Amets Arzallus bertsolariekin Adarra jatetxean. Txartelak bertan salgai.
- 23:30** Dantzaldia Elustondo anai-arrebak Xoxokako eskolan.

URRIAK 7, ASTEARTEA

- 17:00** Idi proba: Egues baserriko Joxe Mari Elolaren idiak Portxeta baserriko Jose Luis Agoteren

idien aurka. 20 minutuko saioa 550 kiloko harriarekin.

- 20:30** Zahagi-ardoa Xoxokako eskolan. Edaria doan, janaria bakoitzak berea eramanda.
- 23:00** Gau sorpresa.

URRIAK 10, OSTIRALA

- 18:00** Sega apustua. Julen Gabirondo eta Mikel Garaialde, Suharri Irazustabarrena eta Iñigo Merkaderreren aurka.
 - 20:30** Bertso afaria Xoxokako plazan Amaia Agirre eta Iker Zubeldia bertsolariekin. Txartelak Adarran, Zelain eta Xauxarren salgai.
- Hitzordu gehiago urriaren 11n eta 12an. Egitarau osoa datorren Aiurri.



Idi proba astearte arratsaldean.



Sanmielak 2014 Aiurri.com gunean

MIELAREN IRITSIERA | PREGOIA | BATUKADA ETA FUNKY SAIOA
| ROCK KAM BAND | DANTZA SOKA | URDANBOR | TALO JATEA |
URNIETAR PRESTU | UDAL OMENALDIA | MIELAREN AGURRA



“GAZTEOK HARTU HITZA!” ANDOAINGO UDALAREN KANPAINA BERRIA 16-29 URTE BITARTEKOENTZAT

Gazteen parte hartzea sustatzeko bilera sorta urrian eta azaroan

Andoaingo Udalak, Foru Aldundiaren laguntzarekin, urria eta azaroan prozesu partehartzaile bat jarriko du martxan herriko gazteei bideratuta. Askotan entzun izan da gazteek ez dutela parte hartzen,

ez direla aktiboak, ez dituztela proposamenak egiten... Udalak, ordea, beste galdera bat planteatu du. Norbaitek eskatu al die gazteei zer nahi duten?

Galdera hori oinarri hartuta, gazteek denbora librean nola igarotzen duten, zer egin nahi duten, zein behar dituzten eta Udalarengandik zer espero duten argitzeko asmoz, ekimen partehartzaile jarri dute martxan. “Gazteok hartu hitza!” lelopean, 16 eta 29 urte bitarteko andoaindarren iritzia jaso nahi dute.

Pausoz pauso, Udalaren eta gazteen arteko harremanak sendotu nahi dituzte, bien arteko hariak lotu. “Herritarrei zer nahi duten galdetu behar zaie. Beraien dirua guk erabiltzen dugu, eta beraz, diru hori zertan erabili galdetzea ezinbestekoa da”, azaldu du **Ana Carrere** alkatea.

Udalak 15.000 euro prozesu honetarako bideratu ditu. Orain, gazteen txanda izango da diru horrekin zein proiektu egin erabakitzeko. Ana Carrere azaldu duenez, garrantzitsuena ez da dirua, baizik eta gazteen iritzia jasotzea, etorkizunean izan daitezkeen ekintzetan kontuan hartzeko. “Zein behar dituzten jakin nahi dugu. Gazteek oso urrun ikusten dute Udala, beraien hitza ez dela kontuan hartzen pentsatzen dute. Hori dela eta, egitasmo honekin beraingana hurbildu nahi dugu, harremanak sendotzeko”, adierazi du.

Hilario Dorronsoro enplegua eta gazteria saileko Udal teknikariak bi helburu nagusi azpimarratu ditu: “Batetik, gazteengana hurbiltzeko modu bat denez, lan egiteko modu berri bat sortzea espero dugu. Bestetik, helburu nagusia gazteei galderak egitea da, eta ea hortik zer ateratzen den, zein emaitza, zein proposamen...”.

Gaizka Licona Aztikerreko ordezkaria izango da prozesua dinamizatuko duena. Bere esanetan, helburu nagusia Andoaingo gazteriarren partehartzea lortzea eta aktibo bilakatzea da, eta Udalak gazteriari begira jarritako diruaren inguruan



Aztiker etxeko Gaizka Licona, Ana Carrere alkatea eta Hilario Dorronsoro Udal teknikaria parte hartze prozesuaren aurkezpenean.

“Bilera sorta honetan saiatuko gara gazteek beraien egoeraren autodiagnostikoa egiten”

Gaizka Licona

“Gazteek oso urrun ikusten dute Udala, beraien hitza ez dela kontuan hartzen pentsatzen dute”

Ana Carrere

“Gazteengana hurbiltzeko modu bat denez, lan egiteko modu berri bat sortzea espero dugu”

Hilario Dorronsoro

erabakiak hartzea. “Saiatuko gara gazteek beraien egoeraren autodiagnostikoa egiten. Andoainek zein behar ditu? Zein hutsune? Zein gauza on ditu? Beharretan sakonduta, beraien proposamen zehatzak jasoko ditugu. Izan ere, beharrak identifikatu eta proposamenak botatzea izango da helburua”.

Prozesua solasaldi eta talde lanetan eramango da aurrera. Bakarkako hausnarketak beharrezkoak izango dira, baina bakarkako lanetik talde lanera urratsa emango dute. Hau da, talde lanean oinarrituko da gehienbat prozesua, eta erabakiak kolektiboak izango dira.

HITZORDUAK ASTE HONETATIK AURRERA

Prozesu parte hartzaile honek hiru fase izango ditu. Lehenengo fasea diagnostikoa egiteko izango da. Bigarrena, aldiz, autodiagnostiko horretatik atera

diren beharren eta, batez ere, atera diren proposamen horien sailkapena egiteko izango da. Hau da, beharrak eta proposamenak mahai gainean jarrita, erabakiak hartzeko unea izango da. Azkenik, hirugarrenean, erabaki zehatzak hartuko dituzte eta horiek ezagutaraziko dira, bai parte hartu duten gazteen artean bai eta herri osoko gazteen artean ere.

Lehenengo saio presentzialak urriaren 8, 14 eta 15ean izango dira. Urriaren 8ko solasaldia Batxilergoko eta Lanbide Heziketa zentroetako ikasleei zuzenduta dago eta Ondarreta ikastetxean elkartuko dira, arratsaldeko 18:00etan. Urriaren 14ko bilera gazte lonjetan eta Gaztetxean ibiltzen diren gazteei begira antolatuta da. Gaztetxean elkartuko dira, arratsaldeko 18:30etan. Azkenik, urriaren 15ean, 24-29 urte inguruko gazteak parte har-

tzea espero bada ere, deialdi irekia egin dute Basteron 18:30etan elkartzeko.

Fase horretan Andoaingo hutsuneak eta beharrak identifikatu dituzte eta bigarren faserako proposamenak botako dituzte. Ondoren, denon artean erabakitzeko. Beraz, proposamenak egiteko eta erabaki horiek hartzeko saio bateratu bat egingo dute azaroaren 5ean, Bastero Kulturgunean 18:30etan. Zein proposamen aurrera atera erabakitzeko eta horiek herriko gazteei jakinarazteko azken saioa azaroaren 19an izango da, 18:30etan Basteron.

Beraz, Andoaingo gazteriarren autoeratzeko lehen pausok emango dituzte urria eta azaroan zehar. Dena den, bi hilabete hauetan egingo denak etorkizunean ere jarraipena izatea espero dute antolatzaileek.

“Gazteok hartu hitza!” lelopean, 16 eta 29 urte bitarteko andoaindarren iritzia jaso nahi dute

PARTE HARTZEKO AUKERAK

Solasaldi hauek ez dira parte hartzeko aukera bakarrak izango, izan ere, herriko gazte bakoitzak ekimenaren eskuorria jasoko du etxean eta bertan erantzunak idatzita, ikastetxeetan eta Gaztetxean jarritako buzoietan utzi ditzakete. Bestalde, Udalak www.parte-hartu.wordpress.com ataria egin du, sarean ere iritziak plazaratu ditzaten. Webgune honetan, gainera, ekimenaren inguruko informazio guztia, solasaldien datak, gazteentzat bereziki prestatutako spot-a eta abar ikus daitezke.

partehartu.wordpress.com

04-14
hamar urte

Martin Ugalde
bihotza golkoan

[Koldo Izagirre
Anjel Lertxundi
Kirmen Uribe
Joan Mari Torrealda
Uhats Taldea]

urriaren 3an
Donostian 19:30
Koldo Mitxelena Kulturunean



Andoaindarrak Realaren historian

1909an Real Sociedad futbol taldea Donostian eratu zenetik, Andoaingo herriarekin modu batera edo bestera lotura izan duten hamazazpi jokalaririk izan dira elastiko zuri-urdina jantzi dutenak.

Lehen Silverio Izagirre dugu, eta azkena oraingoz, Jon Gaztañaga. Zerrenda horretara, Andoainen jaio izan direnak, bizi izan direnak, edota Euskalduna futbol taldean jokatu dutenak bildu dira.

Andoaindarrak Real Sociedad taldean (2)

Aiurri 410 Jon Gaztañaga.
Aiurri 411 Xanti Bakero.
Aiurri 412 Andoain eta Real.

Ez dira ugari, baina banan bana erreparatuz gero, datu bitxiak topa daitezke: Europa nahiz munduko mailako txapelketetan jokatu dutenak (Joko olimpikoak, Errekopa, UEFA...), Espainiako liga irabazitakoak, Espainiako selekzioarekin jokaturakoak, partida ofizialik jokatu gabeak eta 330 partidatik gora jokaturakoak...

1. Silverio Izagirre Sorzabalbere (Donostia, 1898).

Aurrelaria. Euskalduna: behe mailetan. RS: 1920-1923. Guztira, 37 partida. Anbereseko Joku Olimpikoetan parte hartu zuen 1920an, Espainiako selekzioarekin partida bakarra jokatu zuen, txartel gorriagatik kanporatu zuten. Zamora atezainak ordezkatu zuen.

2. Juan Cruz Artola Iartza (Andoain, 1911).

Erdilaria. Euskalduna: behe mailetan. RS: 1935-1936 (1. maila). 9 partida.

3. Fidel Arrieta Gorosarri (Andoain, 1916).

Aurrelaria. Euskalduna: behe mailetan. RS: 1934-35 eta 1941-42 (1. maila). 36ko Gerran kartzelan eta langile batailoietan egon ostean, futboleko jarraitu zuen. Euskalduna: 1944-48 (erregional maila). Entrenatzailea: Euskalduna (1947-48, erregional mailan, Sabino Urrarekin).

4. Juan Mari Lasa Garmendia (Ordizia, 1931).

Defentsa. RS: 1952-1958 (1. mailan). 27 partida. Real Union: 1958-59. Entrenatzailea: Euskalduna (1966-1968 eta 1974-1975, 3. maila). Cordoba (1976-1978, 2. maila).

5. Jose Antonio Irulegi Garmendia (Lasarte, 1937).

Defentsa. Euskalduna: 1954-1955 (erregional maila).



Datu bilketa: www.bdfutbol.com, Euskalduna andoaindarrak liburua (Javier Zatarain) eta Aiurri.

RS: 1956-1965 (1. mailan lehenengo sei denboraldi, 2. mailan hurrengo hiruak). Gol bat guztira.

Pontevedra: 1965-1971 (1. maila). Entrenatzailea: Coruña (1973-74, 2. maila); RS (1975-78, 1. maila); Espanyol (1978-80, 1. maila); Murtzia (1980-82, 1. maila); Xerez (1987-90, 2. maila); Levante (1990-91, 2. maila); Mallorca (1994-96 2. maila); Villarreal (1996-99, 1. eta 2. mailatan).

6. Rafael Mendiluze Elizondo (Andoain, 1939).

Erdilaria. Euskalduna: behe mailetan eta lehen erregional mailan (1957-1958). Sanse: 1958-1960. RS: 1961-1973 (1965-66 eta 1966-67, 2. mailan; gainerakoak, 1. mailan). Guztira: 309 partida, 32 gol.

1967an Puertollanoko partidari, lehen mailara igo zen jokalarietakoa. 1971n Gipuzkoako kirolaririk onena. Entrenatzailea: Sanse (1982-1985); Real Union (1985-1986).

7. Pedro Iguaran Arandia (Lasarte, 1940).

Defentsa. Euskalduna: 1961-62 (3. mailan). Alaves: 1963-1964. RS: 1964-71. (1. eta 2. mailan). Guztira, 87 partida.

8. Julio Marieta Alkiza (Donostia, 1941).

Atezaina. RS: 1960-1963 (1. eta 2. maila). Ez zuen partida ofizialik jokatu. Euskalduna: 1965-66 (3. mailan). 21 partida.

9. Jose Ramon Esnaola Larburu (Andoain, 1946).

Atezaina. Euskalduna: behe mailetan eta 3. mailan (1964-1965). RS: 1965-1973 (lehen bi denboraldiak 2. mailan). Guztira, 181 partida. Betis: 1973-1985. 372 partida. Entrenatzailea: Betis (1990-1993 eta 1996-2000), 1., 2. eta 2.B mailatan.

10. Jose Miguel Arregi Aranzegi (Tolosa, 1941).

Aurrelaria. Euskalduna: 1961-65 (3. mailan). RS: 1965-1970 (lehen bi urteak 2. mailan, ondorengoak lehen mailan). Guztira, 28 partida, 39 gol.

11. Jose Antonio Corcuera Oca (Andoain, 1948).

Erdilaria. Euskalduna: behe mailetan, eta 3. mailan (1965-1966). RS: 1966-69 (2. Mailan), eta 1969-75 (1. Mailan). 1968-69ko igoera fama-tuan parte hartu zuen. UEFAn jokatu zuen. Guztira, 138 partida, 12 gol. Cordoba: 1975-1977. Guztira, 60 partida, 7 gol.

12. Pedro Mari Artola Urrutia (Andoain, 1948).

Atezaina. Lengokoak: behe mailatan. Sanse: 1967-1968. RS: 1968-75 (1. mailan). 35 partida. Bartzelona: 1975-1984 (1. mailan). Guztira, 186 partida. Europako Errekopa, UEFA eta Superkopa jokatu zituen. 1977-1978an Zamora trofeoa eskuratu zuen (golik gutxiena jasotakoa). Sariak: 1977-78, 1980-81 eta 1982-83 (errege kopa); 1978-79, 1981-82 (errekopa); 1982-83 (liga); 1983-84 (Europako superkopa). Espainiako selekzioa: 1979-1980.

13. Jose Mari Artola Urrutia (Andoain, 1944).

Defentsa. Euskalduna: behe mailatan eta 3. mailan (1967-1968). RS: 1969-71. Partida bat jokatu zuen. Euskalduna: 1973-74 (2. erregionala).

14. Marcelino Arano Zarranz (Andoain, 1956).

Defentsa eta erdilaria. Sanse: 1974-80. RS: 1980-82. Partida ofizialik ez. Sariak: 1981 eta 1982, Espainiako liga.

15. Xanti Bakero Eskudero (Goizueta, 1958).

Erdilaria, defentsa. Añorga: behe mailak. Palencia: 1979-1983 (2. mailan). Hercules: 1983-86 (1. eta 2. mailatan). RS: 1986-1989. 90 partida, 3 gol. Europako errekopa eta UEFako txapelketetan ere jokatu zuen. Guztira: 21 gol (1. eta 2. mailatan).

16. Mikel Loinaz Balda (Andoain, 1967).

Aurrelaria. Asparren, beheko mailak. RS: 1986-93. 48 partida, 12 gol. Hiru denboraldietan UEFAn jokatu zuen. Villarreal: 1993-94 (2. maila). 30 partida, gol bat. Eibar: 1994-97 (2. maila). 68 partida, 13 gol. Sabadell: 1999-00 (2.B maila) 25 partida, 4 gol.



KIROL ALBISTEAK

Mikel Iturria 23 urte azpiko munduko txirrindulari txapelketan

Txirrindularitzako munduko txapelketa jokatu zen aurreko astean Ponferradan, eta 23 urte azpiko lasterketan Mikel Iturriak lasterketa bikaina egin zuen. Urrutitik ihes egiten saiatu zen, baina azkenean lasterketa sprintean erabaki zen. “Sentsazio onak izan ditut. Lasterketa osoan gustura ibili naiz, probak aurrera egin ahala aurrealdera joan naiz eta azken itzulian urrutitik eraso jotzea erabaki dut sprintean zereginik ez nuela banekielako. Taldean lider argirik ez zegoen, gu bostak aukerak bilatu behar genituen. Benitok sprinterako gorde ditu indarrak eta nik ahal dela eraso joz saiatu behar nuen. Saiatu gara baina ez da posible izan”. Horiexek izan ziren Mikel Iturriak federazioari helmugan egindako adierazpenak, helmuga zeharkatu eta gero. Urnietarrak lasterketa ona egin zuen, azken itzulira arte onenen pare ibili zelako. Sprinterako bere dohainak onenak ez direlako, eraso jo zuen Silva portugaldarrarekin batera. Tropelak harrapatu zuen, ordea.



Iturria, Pedro Delgado txirrindulari handiak Twitter bidez zabaldu zuen argazkian.

“Azken itzulian urrutitik eraso jotzea erabaki dut sprintean zereginik ez nuela banekielako”

Pozik egoteko moduko lasterketa egin zuen. Gutxira, Twitter bidez, esaldi argigarria idatzi zuen urnietarrak: “Asko disfrutatu dut Sub-23 mailako azkeneko lasterketan. Protagonistak izaten saiatu gara, nahiz eta in-

darrez juxtu joan. Ea ez den azkenak!”. Txio horri erantzunez, esaldi argigarriarekin erantzun zion jarraitzaile batek: “Mikel Iturriaren txio horretan euskal txirrindularitzaren egoera laburbiltzen da”. Iturriak tropelean jarraitzea merezi du.

Sailkapena. 140926:

1. S.E. Bystrom NOR
2. Caleb Ewan AUS
3. Kristoffer Skjerping NOR
40. Mikel Iturria

Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna

Urriaren 12an, igandearekin, Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna ospatuko dute. Hitzordu berri hori Andoain, Lasarte-

Oria, Urnieta eta Usurbil herrietako kirol alorretako kideek aurkeztuko dute. Eskualdeko txokoak eta herri batetik

bestera joateko oinezko bideak zagutzeko aukera ezin hobea da. Xehetasun gehiago, datoren Aiurrin.

Andoainen eskuz, palaz eta zesta puntan trebatzeko aukera

• **Eskuz** jolastu nahi baduzu, neska-mutilentzat: 5-8 urte bitartean: azaldu, urriaren 4an hasita, larunbatetan 11:45etatik 13:00etara Arratera. 9-12 urte bitartean, eman izena zure ikastetxean edota azaldu urriaren 6tik aurrera 17:00etan astelehen eta ostiraletan. 13 urtetik aurrera, eman izena zure ikastetxean edota azaldu urriaren 7tik aurrera 17:00etan astearte eta ostegunetan.

• **Palaz** jolastu nahi baduzu, mutilentzat: 13 urtetik aurrera, eman izena zure ikastetxean edota azaldu urriaren 7tik aurrera 17:00etan, astearte eta ostegunetan. Neskentzat: 11-16 urte bitartean: eman izena zure ikastetxean edota azaldu urriaren 7tik aurrera 17:00etan, astearte eta ostegunetan. 16 urtetik gora: azaldu urriaren 4an hasita larunbatetan 10:00etan Arratera.

• **Zestaz** jolastu nahi baduzu, neska-mutilentzat: 9-12 urte bitartean eman izena zure ikastetxean edota azaldu urriaren 6tik aurrera 17:00etan, astelehen eta ostiraletan. 13 urtetik aurrera eman izena zure ikastetxean edota azaldu urriaren 7tik aurrera 17:00etan astearte eta ostegunetan”.

Informazioa:
943 590 174 (16:00-19:00).

Kontsejupekoa, finalak



Finalak, benjaminetik kadete mailara:

Asier Azpillaga 14-5 Aimar Egizabal
Endika Merxan 16-4 Asier Villar
J.Luis Argote 18-10 Ander Ezenarro
Imanol Odriozola 22-11 Inhar Oiarzabal

Pilota eskola, deialdia

Urnietako eskolan izena eman nahi duten gaztetxoek urriaren 8an pilotalekutik igaro behar dute, 17:00etatik aurrera (657 770 398 Txema).

Urnietako eskubaloit taldeen aurkezpena, ostiral honetan

Futbol taldeekin egin bezala, ostiral honetan Urnieta Kirol Elkarteko eskubaloit atalak taldeen aurkezpen ekitaldia egingo du ostiral honetan kiroldegian, arratsaldeko 19:00etan hasita.

Senior mutilen taldeak, gainera, territorial ligan lehenengo mailan jokatu du, Ordizia Euskadiko ligan jokatu du duelako. Taldeak al-bisteia pozik hartu du. Erronka polita, liga hasteko.

Irteera Ollokira



Denboraldiari amaiera emateko, Ollokira bizikleta irteera antolatu du Andoaingo Txirrindulari Eskolak. Larunbat honetan Goikoplazatik 10:00etan abiatuko dira. Ollokiraino joan eta gero, 12:30ak aldera itzuliko dira.

Kaskoa eramatea beharrezkoa da. Andoaingo eskolako kideak ezagututa, jai eta umore giroan igaroko da larunbat honetako goiza.

Taldeko txirrindulariek atsedean hartuko dute, denboraldi oparoa burutu ostean.

Bitik bi garaipen Urnietak

Erregional Preferentea

Liga.
2. jardunaldia:
Euskalduna 3-2 Dunboa
Urnietak 3-0 Hernani
Orioko 3-1 Trintxerpe

Sailkapena

1. Urnieta 6
10. Euskalduna 3
Asteburuko partidak:
Sanpedrotarra-Euskalduna
Hondarribia-Urnietak

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.



Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etkez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com. **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Izarne Olano, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com. **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzailleak:

Mikel Arregi (Andoain), Gaizka Bernardo (Urnietak). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

URRIAREN 2TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- Hilabetean behin Basteroko pantailan opera, balleta eta zarzuela. “La Traviatta”, Verdiren opera Basteroko pantailan. 20:15. Bastero. Urriak 3, ostirala.
- “El hombre mas buscado”. 19:30, 22:00. Urriak 4, larunbata. 19:30. Urriak 5, igandea. 19:30, 22:00. Urriak 6, astelehena.
- “Khumba”, haurrentzat. Urriak 4, 5. 17:00.
- “Gazako zerria” dokumentala. 19:30. Urriak 7, asteartea

Ludoteka

Karrika, Andoain

- Karrikako Udal ludoteka. Izena emateko epea irekia. “Larunbatean euskaraz” eta urte osoan zehar tailerrak. 943 592 181.

Matrikula

Urnietak

- Presentacion de Maria ikasketxeko haur eskolan 0, 1 eta 2 urteko haurrentzat matrikula zabalik. Urriaren 10era arte. 943 551 782.

Irteera

Andoain

- Gazte lokalak irteera antolatu du Senda Vivara. Prezioa: 20 euro. Izen-ematea zabalik. Informazioa: 943 300 746. Epea: Urriak 8. Irteera: Urriak 11.

Salkin

Andoain

- Bezzeroaren astea, erosketa bakoitzeko sariak aukeran. Urriaren 5a bitarte.

Ikastaroak

Andoain

- Jabetze eskola: Zer egin indarkeria eta eraso sexisten aurrean? Irakaslea: Silvia Arevalo. Hizkuntza: Euskara. Datak: Azaroak 4, 11, 18, 28 eta abenduak 5 eta 12. Ordutegia: 18:30-20:00. Non: Urigain. Matrikula: 10 euro, Ataria. Izen-ematea: Urriak 31.

Deialdia

Urnietak

- Futbol ligako kromoen bildumazaleen topaketa. Guria tabernaren ondoko plazara deitu dituzte gaztetxoak, kromoen trukaketarako. Urriak 5, igandea. 12:00.

Xoxoka

Urnietak

- Urriak 6, astelehena. 12:00 Jaien hasiera. 12:30 Herri kirolak: Telleria eta Mugerza anaiak elkarren aurka. Ondoren, trikititxa. 14:00 Bazkari herrikoia Jexux Mari Irazu eta Amets Arzallus bertsolariekin Adarra jattetxean. 23:30 Elustondo anaiak.
- Urriak 7, asteartea. 17:00 Idi proba: Egueseko J.Mari Elolaren idiak Portxetako J.Luis Agoteren idien aurka. 20 minutuz 550 kiloko harriarekin. 20:30 Zahagi-ardoa. Edaria doan, janaria bakoitzak berea eramanda. 23:00 Gau sorpresa.

Gazteak

Andoain

- “Gazteok hartu hitza!” bilera sorta. Argibideak, 5. orrialdean. Urriak 8, 14 eta 15.

Sanmielak

Urnietak

- Urriak 4, larunbata. 11:00 Toka eta Bote txapelketak Urraka auzoan. 12:00 Sardina jatea Plazido Muxika plazan. 14:00 Paella jatea herrikoia Urrakan. 15:30-18:30 Futbolin erraldoi txapelketa Egapen. 17:00-20:00 Haur ikuskitzuna eta ur-zezenen entzierroa Urrakan. 18:30-20:30 Urnietako I. Txirrindularitza Kriteriuma Idiazabal kalean. 19:00 Saroben Aurrera Gure Ametsa eta La Rondalla de Esplús (Huesca). 21:00 Kalderetea Urrakan. 22:00 Disko-Festa Urrakan. 22:00 Bertso-afaria Oianumen: Beñat Gaztelumendi eta Iker Zubeldia.
- Urriak 5, igandea. Baserritarren eguna. 09:30 Diana. 11:00 Meza Nagusia. 11:30 Zaldi proba probalekuan. 12:00 Pintxo-potea eta Munduko Ardoak Jakutegi plazan, Batzoki elkarteak antolatuta. 2 eurotan pintxoa eta ardoa. 12:00 Ingurutxoak eta XIII. Jalgi Plazara jaialdia Aurrera Gure Ametsa taldearen eskutik, plazan. 17:00 Herri kirol erakustaldia probalekuan. Herriko trikitilarien kalejira. 18:00 Txekor jatea eta sagardo dastaketa plazan. 19:00 Dantzaldia: Egan. 21:15 Zezen suzkoak eta azken traka. Jaien inguruko gehigarri berezia, Aiurri honetan.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Urriaren 13an **Irene** 5 urte beteko ditu. Zorionak etxeko printzesari eta muxu potoloak. Etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Urriaren 8an **Malen** 12 urte. Ondo ospatu! Maite zaitugu! Aita, ama, Markel, Urki.

URNIETA

ZORIONAK



Imanol Usandizaga Zubirik 16 urte beteko ditu urriaren 10ean. Ondo pasa! Muxuak, etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Junek irailaren 30ean 4 urte. Zoriona k morrozkita! eta muxu potolo bat. Aita, ama eta Asier.

URNIETA

ZORIONAK



Oihan 5 urte beteko ditu urriaren 6an. Zorionak eta muxu potolo bat. Etxekoak.

ANDOAIN

URREZKO EZTEIAK



Zorionak **Pedro** eta **Juan**! Urriaren 3an zuen Urrezko ezteiak ospatuko dituzue eta! Ondo-ondo pasa eta muxu handiak etxekoan partetik! Jarraitu beti bezain alai eta zoriontsu!

ANDOAIN

Aiurri ZORION AGURRAK diseinua@aiurri.com

Folklore eta gastronomia jaia larunbat honetan

Triana eta **El Miajon de los Castuos** kultur elkarteek folklore eta gastronomia jaialdia antolatu dute larunbat honetarako. Egun osoan zehar, Andaluzia eta Extremadurako produktu tipikoen dastaketaz gozatu ahal izango da, prezio onean. Ospakizunera andoaindar guztiak gonbidatu nahi dituzte.

Urriak 4. Egitaraua:

11:30 Merche Montes flamenko kantaria. 12:30 Agintariei harrera. 17:00 Folklore taldeak: Errenteriako Concha Rociera, Iruñeko Raices y Brotes, Merche Montes flamenko kantaria eta Lasarteko Zambra taldea.

Hitzordu berriak Irunberrin

Irunberri elkarteak zailtasunei aurre egiten asmatu du urte hauetan guztietan, eta orain ez da gutxiago izango. Ekimen sorta burutuko duela iragarri zuen eta dagoeneko lehen ekitaldiak antolatu dituzte. Hasteko, larunbat honetan futbolin txapelketa antola-

tu dute arratsaldeko 17:30etatik aurrera. Bikoteko sei euro ordaindu behar da. Sarien artean aforiak zozketatuko dituzte.

EUSKAL GARAGARDO AZOKA

Urriak 9, 10 eta 11. Lorratzak taldea zuzenean arituko da urriaren 10ean.

DATORREN AIURRI ASTEKARIA URRIAREN 10EAN ARGITARATUKO DA